

2020-2021 IKASTURTEAREN HASIERARAKO JARDUKETA-PROTOKOLO OSAGARRIA ETA IKASTETXEETAN COVID-19 KASUAK AGERTZEN DIRENERAKO JARDUNBIDEAK

Ikasturtearen **hasieran ikastetxean eskolaz kanpoko jarduerarik ez antolatzea gomendatzen da**, harik eta ikasleak ikastetxera itzultzearen bilakaera, eskola jardueraren kudeaketa eta garapena eta pandemiaren beraren bilakaera ikusi arte, kasuen trazabilitate hobea bermatzeko.

Unea iristen denean, zer baldintzatan antola daitezkeen jakinaraziko da; nolana ere, irizpide orokor gisa, ikastetxeko ohiko bizikidetzataldeei eusteari eta kontaktu fisikorik ez dakarten jarduerari lotuta egongo dira.

Egoeraren bilakaera aztertu ondoren, neurri berriak hartuko dira eskolaz kanpoko jarduerari dagokienez.

